


# Elkartek 46

INFORMAZIO ALDIZKARIA



## Gogoratu ...

### ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea  
Tel. eta Faxe: 945 225 516  
01009 VITORIA-GASTEIZ  
e-mail: eginez@euskalnet.net  
www.eginez.org

### GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean  
Tel.: 943 316 770 • Faxe: 943 316 379  
20018 DONOSTIA  
e-mail: elkartu@elkartu.org  
www.elkartu.org

### BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea  
Tel.: 94 405 36 66 • Faxe: 94 405 36 69  
48014 BILBAO  
e-mail: fekoor@fekoor.com  
www.fekoor.com

% 100ean birziklatutako paperean inprimatua

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**  
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

## GIPUZKOA

- **AGAER**  
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**  
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**  
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**  
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetatasuna.
- **ASPARGI**  
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BEGIRIS**  
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarteak.
- **BIZI-BIDE**  
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**  
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarteak.
- **KEMEN**  
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**  
Lezoko gutxituen elkarteak.

## BIZKAIA

- **ACCU**  
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolitisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**  
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**  
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**  
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**  
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**  
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**  
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**  
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**  
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**  
Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- **AVAH**  
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**  
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarteak.
- **BIDARI**  
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**  
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltezuak.
- **CODISFIBA**  
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **EFELA**  
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.
- **EMAN ESKUA**  
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**  
Elbarrituen eta Gaixoen Kristautau Elkarteak.
- **LEVAR**  
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena. Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

# AURKIBIDEA

## Orokorra

Elkartean-en bilera Lehendakiarekin eta haren sailburuetako batzuekin	4
Elkartean-en bilerak Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailekin .....	4
Elkartean-en talde parlamentarioekin eta Eusko Legebiltzarreko Lehendakariarekin .....	6
Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) erreformatzeko Eusko Jaurlaritzaren proposamena aurkeztu da.....	6
Elkartean-ek erretiro aurreratuaren erreformari buruzko iritzia jakinarazi die Legebiltzarrari eta Senatuari.....	8
Legez besteko proposamen bat onartzea.....	9

## Araba


Hiriarteko garraioa.....	10
Tuvisa-ren autobus berriak.....	11
Ahalduntzeko ikastaro praktikoa.....	12
Batzar orokorra.....	12
Hezkuntza.....	13
Eraztun berde irisgarria .....	13
Haur parke egokituak.....	13

## Bizkaia

Babestu zure eskubideak .....	14
Elkartearen 2020 estrategia.....	14
Hiri mugikortasun jasangarriaren plana.....	15
Bilbo aurrerago-n parte hartzea.....	15
Bilbao balioen hiria .....	15
Galdakaoko udalarekin bilera.....	16
Kultura eta kiroldegiko zinegotziarekin bilera.....	16
Bilerak Batzar Nagusietako taldeekin .....	17
Sentsibilizazio-jarduerak .....	17

## Gipuzkoa

Irisgarritasun unibertsalari buruzko topaketa.....	18
Donostiako udaleko lan-poltsak .....	19
Gizarte politikei buruzko ikerketa.....	20
Etxebizitza publikoa eta baliaezintasun handia .....	20
Euskotrenen Topoa .....	21



# ELKARTEAN-EN BILERA LEHENDAKARIAREKIN ETA HAREN SAILBURUETAKO BATZUEKIN

Joan den apirilaren 25ean, ELKARTEANek bilera instituzionala egin genuen Iñigo Urkullu lehendakariarekin; bertan egon ziren, halaber, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Iñaki Arriola Lopez Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailburua.

ELKARTEANek eskerrak eman nahi dizkio Eusko Jaurlaritzari gurekin biltzea onartzeagatik, horrek argi erakusten baitu norainoko presuntasuna duen Jaurlaritzak Euskadin bizi eta desgaitasun fisiko eta/edo organikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea, partaidetza eta bizimodu independentea hobetzeko.

Bileran, aukera izan genuen bai lehendakariari eta bai sailburuei ELKARTEANen kezka nagusien berri emateko; honatx:

- Euskadin **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA** sustatzearen aldeko apustua, kontuan harturik aurten 20 urte betetzen direla Irisgarritasunaren Sustapenerako 12/1997 Legea onartu zenetik.
- **HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN** aldeko konpromezua, Hezkuntza Lege berriak eredu hori aintzat har dezan, eta gure legeetan ageri diren neurri guztien aplikazioa, ikasle guztiek, baita desgaitasunak eta, beraz, gure babesaren beharra dutenek ere, inklusiorako duten eskubidea bermatua izan dezaten.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak **LAN-MUNDUAN INTEGRATZEAREN** aldeko konpromezua, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 delakoan ezartzen dena garatzea helburu hartuta, eta beren lan-egoera duintzearen aldeko apustu irmoa.

- **BIZIMODU INDEPENDENTEAREN** aldeko apustu irmoa: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema behar bezala ezartzearen bidez, behar adina prestazio eta laguntza egoki eskainiz.
- **HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN** parte-hartzea bermatzea gure alorreko politikak eta ekimenak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko lanetan, Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskadiko Legeak dioena oinarri hartuta.
- **DESGAITASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN** eskubide guztiak bermatzea, eta horretan, politika eta ekimen guztietan transbertsalitate bikoitza (generoa eta desgaitasuna) aintzat hartzea.

Bileran landu ziren gaietan sakontzearen hizketan eta lanean jarraitzea adostu genuen Eusko Jaurlaritzarekin, baina horretaz gain, eta Irisgarritasunaren Sustapenerako 12/1997 Legea onartu zela 20 urte betetzen direla aprobetxaturik, Euskadin zenbait ekimen martxan jartzearen aldeko interes handia agertu zuen LEHENDAKARITZAK.

## ELKARTEAN-EN BILERAK EUSKO JAURLARITZAREN ZENBAIT SAILEKIN

Joan den martxoan eta apirilean, ELKARTEANek bi bilera egin genituen Eusko Jaurlaritzako honako Saitetako ordezkariekin:

- Martxoaren 13an, bilera egin genuen Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin eta haren bi sailburuordeekin, Marcos Muro eta Lide Amilibiarekin.
- Apirilaren 3an, bilera egin genuen Maria Jesus Carmen San Jose Lan eta Justizia sailburuarekin.

Bileran bakoitzean gure elkartearen kezka nagusiak jakinarazi genizkien bi Saitetako ordezkari.

Zehatz esateko, **Enplegu eta Gizarte Politike-tako Saileko ordezkariekin** honako gai hauei buruz hitz egin genuen:

- Eusko Jaurlaritzak konpromiso irmoa agertu beharko luke desgaitasunak dituzten pertsonak lan-munduan integratu eta haien lan-egoera duintzearen alde. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzari adierazi genion guztiz beharrezkotzat jotzen dugula, batetik, Nazio Batuetako Konbentzioaren 27. artikuluaekin bat datozen neurriak onartzea, desgaitasunak dituzten pertsonen, bizimodua ateratze aldera, beren lana askatasunez hautatzeko eskubidea bermatzea eta lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarri batean lan egiteko aukera izan dezaten, eta bestetik, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 delakoan aipatzen den arauetako bat (D.3 ardatza: “Desgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunterako sarbidea eta jardueratasoa hobetzea”) ahal beste garatzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskadiko sistema ezarri eta Bizimodu Independentearen alde apustu egitea. Zehatz esateko, ELKARTEANek proposamen bat egin diogu Eusko Jaurlaritzari,

Bizimodu Independentea sustatzeko beharrezkoa den prestazio ekonomikoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sar dezan eskatuz.

- Desgaitasunak dituzten pertsonentzako egoitzen Dekretua egitea eta onartzea, eta horretan, desgaitasunaren alorrean lan egiten duten elkarteek parte hartzea, bizimodu independentea erdiestea helburu duten ibilbideak urratzearekin bat datorren ikuspegi batetik betiere. Gure ustez, izan ere, prestazio hori ezinbestekoa da desgaitasun fisiko eta/edo organikoak dituzten pertsonentzat, bizitzaren joanean egoitza horietako batera joateko premia izan baitezakete. Horregatik, oinarri-oinarrikotzea da goraxeago aipatutako Zorro horretako prestazioaren kondizio tekniko, funtzional eta materialak ondo erregulatzea (eta, hain zuzen ere, horixe aurreikusten da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Plan Estrategikoan), hala araugintza-esparru bat sortu eta segurtasun juridikoa eta kalitate-irizpideak behar bezala bermatzeko.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)



justizia sozialaren eta estigmatizaziorik ezaren parametroetan oinarrituta diseinatzea eta garatzea, eta prestazio hori desgaitasunak dituzten pertsonen premietara egokitzea. Zehatz esateko, araugintza-esparru berriak ez lioke inola ere uko egin behar pentsionisten eskubideak defendatzeari. Era berean, pertsona onuradunen eskubideak bermatze aldera, familiagatiko pentsio edo prestazioren bat ematea arautu beharko litzateke, ardurapean seme-alabak edukitzeagatik.

**Lan eta Justizia Sailarekin**, desgaitasunak dituzten pertsonak lan-munduan integratzeari buruzko gure iritziak azaltzeaz gain, honako gai hauek kontrastatzeko aukera izan genuen:

- Desgaitasunak dituzten pertsonak lan-mundu ireki, inklusibo eta irigarri batean integratzearen alde ELKARTEANek defendatzen dugun ikuspegia, segregazio- eta bazterketa-guneak sortzen dituzten enplegu-ereduak baztertzeko duena. Horrek, gainera, balio handia ematen dio gure egitekoari, gure elkartearen ezagutarazten duen aldetik. Era berean, “Desgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunterako sarbidea eta jarduera-tasa hobetzea” behar-beharrezkoa dela ere adierazi genuen, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 delakoaren oinarriak aintzat hartuz.
- Lantoki guzti-guztietan desgaitasunak dituzten pertsonen eskubide eta lan-baldintzak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea; batez ere, lan-harremanekin lotutako hauek: soldata-kondizioak, lanpostuen egokitzapena, desgaitasunak dituzten emakumezko langileak, mailaz igotzeko baldintzak...
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Fiskaltzari bitarteko pertsonal eta material nahikoak ematea, desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak defendatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.
- Lan eta Justizia Sailak egindako ikerketa-lan eta estatistika guztietan desgaitasunaren aldagai transbertsala aintzat hartzearen beharra.

## ELKARTEAN-EN BILERA TALDE PARLAMENTARIOEKIN ETA EUSKO LEGEbiltzarreko LEHENDAKARIAREKIN

Urtearen lehen seihilekoan, ELKARTEANek zenbait bilera egin ditugu talde parlamentario guztiekin eta Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria den Bakartxo Tejeria Oterminekin.

Bilera horietan, gehien kezkatzen gaituzten gaiak azaltzeaz gain, gure iritzi eta proposamen nagusien berri ere eman dugu. Gure jarrera irekia izan da beti, eraikitzailea, eta gure helburua, berriz, oso argia: aukera-berdintasunaren, parte-hartzearen, inklusioaren eta bizimodu independentearen alde gero eta politika hobekien erdiestea; batik bat, gure elkarteak oinarri-oinarrizkotzat jotzen dituen esparru hauetan:

- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzat egokiak izango diren diseinu-ereduak esparru guztietan.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen lan-integrazioa enplegu arruntaren alorrean.
- Hezkuntza inklusiboa.
- Bizimodu independentea eta nor bere komunitatean parte hartzea helburu dituen Gizarte Zerbitzuen Sistema, herritarren artean desber-





dintasunik onartzen ez duena.

- Osasun Sistema irisgarria, prestazio egokiak bermatzen dituena.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren parte-hartze eraginkorra.
- Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea.
- Gizarte-inklusioa bermatzen duten prestazioak.
- Desgaitasunak dituzten emakumeen eskubiak bermatu beharra, eta horretan, politika eta ekimen guztietan transbertsalitate bikoitza (generoa eta desgaitasuna) aintzat hartu beharra.

## DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE) ERREFORMATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA AURKEZTU DA

**E**usko Jaurlaritzak maiatzean aurkeztu zuen DSBEa erreformatzeko oinarriari buruzko dokumentua, araugintza-esparrua bera erreformatzeko bidea irekitzen duena.

ELKARTEANek bere iritzi eta proposamenak egin genizkion Jaurlaritzari joan den apirilean, eta aurrerantz ere aktiboki parte hartzen jarraituko dugu erreforma horretan. Zehatz esateko, DSBEa justizia sozialaren eta estigmatizaziorik ezaren parametroetan oinarrituta diseinatzea eta garatzea eskatzen dugu ELKARTEANek, bai eta prestazio hori desgaitasunak dituzten pertsonen premietara egokitzea ere.

Gure ustez, behar-beharrezkoa da DSBEa desparrekotasunaren kontrako borrokaren ardatzetako bat izatea, txirotasuna murrizten eta bazterketa-ri aurrea hartzen laguntzen baitu: zenbaitetan, inklusioa erdiesten laguntzen du; eta, beste zenbaitetan, segurtasun-sare moduko bat ematen.

ELKARTEANen ustez, araugintza-esparru berriak ez lioke uko egin behar pentsioren bat jasotzen duten pertsonen eskubideak defendatzeari. Era berean, pertsona onuradunen eskubideak bermatze aldera, familiagatiko pentsio edo prestazioren bat ematea arautu beharko litzateke, ardurapean seme-alabak edukitzeagatik. Hona hemen gure jarreraren ildo nagusiak:

- DSBEa jasotzen duten pertsona guztiek gutxienez Oinarritzko Soldataren % 100 jasotzen dutela bermatzea, prestazio horrek txirotasun-atalasea gainditzen lagundu dezan.
- Oinarritzko Soldata izatea eguneratze-indize nagusia, eta, aldi berean, indize hori lege bidez ez saihesteko mekanismoak onartzea, horrek segurtasun falta juridiko eta sozial handia eragiten baitu.
- DSBEa lortzeko, hari buruzko informazioa eskuratzeko, eta eman ala ez erabakitzeko eta justifikatzeko prozesua publikoa dela bermatu behar da.
- Ardura, onuradunarena ez, baizik eta Lanbide-arena denean, legez ezarri behar dira zor ez diren kopuruak itzultzeko mekanismoak, horrek onuradunei ahalik eta kalterik gutxien eragin diezaien.



- Etxebizitza lortzeko mailegu bat eskatzeak ez luke DSBEa lortzea galarazi behar, beste zirkunstantzia batzuk ere tartean daudenean (langabezia, etab.), faktore horrek pobretzea eta/edo bazterketa eragin baitezake.
- Balio gutxiko ondarea edo norberaren esku ez dagoen etxebizitza bat izateak ez luke DSBEa lortzea galarazi behar.
- DBSEa eta seme-alabak ardurapean edukitze-agatik prestazioa bateragarri izatea, eta osagarri hori seme-alabak ardurapean edukitze-agatik prestazioaren titular nahiz onuradunei onartzea (hau da, bai prestazioaren titularrek eta bai onuradunek aukera izatea DSBEaren osagarri hori jasotzeko).
- DSBEaren eta egoitza bateko zerbitzuen erabiltzaile izatearen arteko bateragarritasuna bermatzea, baldin eta zirkunstantzia hori insertzio-prozesu batekin lotuta baldin bada-go.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak enplegu arrunterako merkatuan zailtasunik gabe integratzeko neurri positiboak hartzea.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak beren egoeratik izan ohi dituzten gainkostuak direla eta, etxebizitzaren osagarria eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bera ere igotzea.
- Lanagatik sarrerak jaso bai baina lanaldi-murrizketaz gozatzeko eskubiderik ez den kasuetan, salbuespeneko zirkunstantziatzat hartzea desgaitasunak dituzten familiakoak zaintze aldera eskatutako eszedentziak eta lanaldi-murrizketak.
- Prestazioa inklusio-planen diseinu eta aplikazioarekin lotzea, pertsonen parte-hartzea bermatuz eta gizarte-zerbitzuen koordinazioa hobetuz, pertsonen autonomia eta bizimodu independentea (eta ez bakarrik enpleguan: bizitzako esparru guzti-guztietan) lortzea helburu duen prozesua behar bezala planifikatzeko eta dinamizatzeke.
- DSBEaren kalkuluan ondare babestua aintzat ez hartzea.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Gizarte Inklusioaren Legea berrikusteko prozesu horretan, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea eta gizarte-inklusioa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak onartzearen lanean jarraituko dugu ELKARTEANek.

## ELKARTEAN- EK ERRETIRO AURRERATUAREN ERREFORMARI BURUZKO IRITZIA JAKINARAZI DIE PARLAMANTUARI ETA SENATUARI

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 161 bis artikulua garatzen duen 1851/2009 Errege Dekretua aldatzekotan direla eta, joan den urtarrilean ELKARTEANek gure ikuspegi eta proposamenen berri eman genien Parlamentuari eta Senatuari % 45eko edo hortik gorako desgaitasuna duten langileen erretiro aurreratuari buruz.

Zehatz esatera, zenbait proposamen egin genizkien, aragintza-esparru berriak honako alderdi hauek aintzat har ditzaten:

1. Gaur egungo aragintza-esparruak beren desgaitasun-maila aintzat hartzen ez dien pertsonen erretiro aurreratuz gozatzeko aukera ematea.
2. Gutxieneko kotizazio-aldian % 45eko edo hortik gorako desgaitasun-maila onartua izan ez duten pertsonen erretiro aurreratuz gozatzeko aukera ematea.
3. Gutxieneko kotizazio-aldian 15 urtez lan egiteko eskaera bertan behera uztea. Desgaitasunak dituzten pertsona asko berandu hasten dira lanean, eta kontratu eskasak izan ohi dituzte (aldi baterakoak, gehienbat).



4. Desgaitasunak dituzten pertsonak, erretiro aurreratua hartzen dutenean, pentsio egokiak izatea. Kontuan hartu behar da desgaitasunak dituzten pertsona askok enplegu babestuak izaten dituztela, eta beren soldatak eta kotizazioak oso baxuak izan ohi direla. Zenbaitetan, gainera, kondizio mendeak izaten dituzte. Horretaz gainera, pertsona horiek ez dute betetzen gutxieneko kotizazio-aldia, eta horrek pentsio baxuak kobratzea ekarri ohi die, bizimodu duina izateko aski ez dena.

## **EUSKO LEGEBILTZARRAK ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN LANGILEEN ALDEKO ERRESERBA- KUOTARI BURUZKO LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA ONARTU DU, ETA HORRETAN, ELKARTEAN-EN EKARPENAK ERE AINTZAT HARTU DIRA**

**M**artxoan, Eusko Legebiltzarrak ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN LANGILEEN ALDEKO ERRESERBA-KUOTARI BURUZKO LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkeztu zuen. ELKARREKIN PODEMOSek aurkeztu zion proposamena EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIAri, eta bertan, aintzat hartu ziren, halaber, EAJ-PNV, ES-SV eta EH-BILDU taldeen zuzenketak. ELKARTEANek gure iritzi eta proposamenen berri eman genien talde parlamen-

tarioei, eta gehien-gehienak aintzat hartu ziren bukaerako dokumentuan.

Besteak beste, alderdi hauek jasotzen ditu legez besteko proposamenak:

- Nazio Batuetako Konbentzioaren 27. artikularekin bat datozen neurriak onartzen dira, desgaitasunak dituzten pertsonari, bizimodua ateratze aldera, beren lana askatasunez hautatzeko eskubidea berma dakien eta lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarri batean lan egiteko aukera izan dezaten; zehatz esatera, indarrean dagoen legediak aurreikusten duen erreserba-kuota aintzat hartzen da.
  - Pertsona horien enpleguari buruz gogoeta egiteko beharra aitortzen da; batik bat, kolektibo horren enplegarritasuna eta enplegu-motak (enplegu arrunta, autoenplegua eta enplegu publikoa) hobetzeko beharrezkoak diren neurriak buruz.
  - Langileak gradualki enplegu arrunta lortzen ari direla bermatzeko beharrezkoak diren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak martxan jartzen ditu, bai eta neurri zehatzak ere, enplegu-mota horretan desgaitasunak dituzten pertsonak modu ireki, inklusibo eta irisgarrian integratzeko.
  - Gaur egungo araugintza betetzen dela bermatzeko (erreserba-kuota zorrotz betetzen dela ikusteko, edo, salbuespenezko kasuetan, haren ordez neurriak hartu diren jakiteko), ikuskaritza indartzen diren.
  - Kontratu publikoak, diru-laguntzak nahiz onura fiskalak lortzeko, erreserba-kuota betetzea ezinbestekoa izatea aurreikusten da.
- ELKARTEANek begi onez ikusten dugu Eusko Legebiltzarrak onartu duen ekimen hau, desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu ireki, irisgarri eta inklusibo batean lanean hasteko balioko duelakoan; eta, alde horretatik, legez besteko proposamenak jasotzen dituen printzipio eta neurriak garatzearen alde lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

## HIRIARTEKO GARRAIOA: MADRIL- IRUN LINEA

*egínaren egínez* elkarteak errepideko hiriarteko garraio-zerbitzuan (Madril-Irun ibilbidean) mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak jasaten duten legez kanpoko diskriminazioa salatu dugu Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioan eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko organoetan. Zerbitzu hori ALSA Taldeak ematen dugu, Nex Continental Holdings taldeko enpresaren bidez, eta ez ditu mugikortasun-arazoak dituzten erabiltzaileen irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko indarrean diren legezko baldintzak betetzen; irisgarritasun- eta segurtasun-baldintza horiek indarrean eta derrigorrez ezarrita egon beharko lirateke aipatutako zerbitzuan.


Elkarteak salatu dugu, besteak beste, **ALSA Taldearen konpainiak Irun-Madril ibilbidea egiteko erabiltzen duen administrazio-emakida iraungita dagoela 2015. urtetik**, eta zuzenbidearen aurkakoa dela Sustapen Ministerioak emakida hori “isilbidez luzatzea”; izan ere, Ministerioak emakida berriro ere lehiaketara ateratzeko eginbeharra du, eta lehiaketara aurkezten direnek material mugikor guztia irisgarria izan behar dute, indarrean den legedia betetzeko. Kontua ez da hutsala; izan ere, iraungitako emakidara atxikitako material mugikorraren erdiak ez du irisgarritasun arloko araudi teknikoa betetzen, eta, Sustapen Ministerioak, esku hartzen ez duen neurrian, utzi egiten dio ALSA Taldearen enpresari zerbitzu ez-irisgarria ematen (gaur egun indarrean den legediaren aurka), modu mugagabean gainera, eta hori baztertzaila ez ezik legez kanpokoa ere bada.

Era berean, elkarteak salatu duenez, indarrean den araudi teknikoan berriaz adierazitakoaren kontra, **azken urteotan garraio-linea horretan jarritako ibilgailu berri gehienek ez dituzte**

**irisgarritasuneko gutxieneko baldintzak betetzen**, eta beraz, ezin dute bermatu ibilgailura igotzeko eta autobusean joateko gurpildun aulkia behar duten bidaiariek erosotasun eta segurtasun baldintza berberetan bidaiatu ahal izatea. Horren guztiaren ondorioz, adibidez, Gasteiz-Madril edo Madril-Gasteiz ibilbidean egunean hamar eta hamabi zerbitzu eskaintzen badira ere, bi eta lau artean soilik ematen dira mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako auto irisgarriekin. Eskaintza, beraz, nabarmen baztertzaila eta indarrean den araudi teknikoaren aurkakoa da.

Azkenik, prezioetan ere ez dela araudia betetzen salatu du Elkarteak. Zehazki, araudiak dio garraio bide batek goragoko klaseetan baino ez baditu eskaintzen gutxitasuna duten pertsonentzako lehentasuneko plazak, **gutxitasuna duten bidaiariek beheragoko klaseko txartela (turista, etab.) ordainduta erabili ahal izango dituztela plaza horiek**. Alabaina, jakin badakigu auto irisgarriekin egunean zerbitzu gutxi (2 eta 4 artean) eskaintzen badituzte ere gurpildun aulkia behar duten bidaiarientzako, bat izan ezik beste guztiak goragoko klaseko edo premium klaseko autobusetan direla, eta ALSA taldearen konpainia behin eta berriro tarifa garestiena ko-bratzen ari zaiela mugikortasun-arazoak dituzten bidaiariei, eta ez, araudiak esaten duen moduan, klase merkeenari dagokion tarifa. Hori ere baztertzaila eta zuzenbidearen aurkakoa da.

*egínaren egínez* elkarteak **kontzientziario eta salaketa-kanpainekin jarraituko dugu**, gutxitasun-egoeran dauden emakumeek eta gizonek gainerakoek **eskubide, betebeharrak eta aukerak berberak izan ditzaten** lortu arte, eta beharrezkoa bada, **epaitegietara jotzen jarraituko du, kolektiboaren erabateko inklusioa bermatzeko xedea duen araudia errespetatu dadila exijitzeko**.



## TUVISA-REN AUTOBUS BERRIAK

**M**aiatzaren 22an, egínaren egínez elkar-  
tea TUVISA konpainiaren autobus be-  
rriak aurkezteko ekitaldi pribatua izan  
zen, beste bi kolektiborekin eta korporazioaren gi-  
nen eta TUVISAren ordezkariekin batera.

Ekitaldian aukera izan genuen 10 autobus be-  
rrien ezaugarriak bertatik bertara ezagutzeko.  
Artikulatuak dira guztiak, 128 pertsonentzako  
edukierarekin, kolore berde eta zurikoak, eta  
arduradunen arabera, ekologikoagoak, jasanga-  
rriagoak eta irisgarriagoak. Autobus horiek 2, 4  
eta 6 lineetan emango dute zerbitzua.

Ikusmen urritua duten kolektiboekin autobusa-  
ren kanpoaldeko informazioa nola eman adostu  
da: hala, zer linea den jakiteko idazkunak letra-  
tipo eta ezaugarri kromatiko bereziz adieraziko  
dira, argi gutxirekin ere irakurtzeko moduan.

Autobusera igotzeko, erdialdean, bi arrapala  
dituzte ibilgailuek, bat automatikoa eta bestea  
eskuzkoa.

Barnean, aurreko aldetik sartu ondoren, elemen-  
tu urdin bat egokitu da gidariaren ondoan. Horri  
zapalduta, ahots bidez jaso daiteke informazioa  
eta informazio-pantaila bat ere badago aurreko  
aldean.

Arrapalatik autobus barrura sartuta, gidariaren  
lekutik hurbil, ezkerrean, bi plaza erreserbatu  
daude gurpildun aulkian doazen pertsonentzat  
edo aulkian doazen haurrentzat, eta beste bat  
eskuinean. Noranzkoaren aurkako zentzuan ja-  
rri behar da plaza horietan. Heldulekuak daude  
aulkientzat egokitutako plaza horien inguruan.  
Heldulekuak izan arren, derrigorrezkoa da lo-  
tuta joatea. Txartela balioztatzeko makina eta  
geldialdia eskatzeko sakagailua ere badira plaza  
horietan.

Ertz urdina duten 4 eserleku daude ezker aldean,  
gurpildun aulkirik erabiltzen ez duten mugikor-  
tasun murriztuko pertsonentzat, bi martxaren  
noranzko berean eta beste 2 martxaren kontrako  
noranzkoan.

Eta ertz berdeko beste bi eserleku zabalago dau-

de eskuinean, leku gehiago behar duten pertso-  
nentzat, martxaren kontrako noranzkoan.

Erreserbatu gabeko eserlekuak altuera handiko  
eskailera bat dute igotzeko.

Elkartearen iritziz, aulkirik erabiltzen ez duten  
mugikortasun murriztuko pertsonentzat erre-  
serbatutako plazak gutxi dira, kolektibo horrek  
maiz erabiltzen duelako garraio bide mota hori,  
eta pertsona horiek ibilbidea zutik egiteko zail-  
tasunak dituztenez, eserita joan behar dutelako  
segurtasuna bermatzeko. Gainera, ezin dituzte  
gainerako eserlekuak erabili, haietara igotzeko  
gaingidu behar den eskailera handiagatik. Adie-  
razi diegu, hiriko autobusen hurrengo eroske-  
tetan, mugikortasun murriztuko pertsonentzako  
plaza gehiago egokitu ditzatela.

Segurtasun-uhala lotzea ere ez da erraza, oso  
atzean baitago.

Mugikortasun-arazoak dituztenek martxaren  
aurkako zentzuan joan behar dutenez, ezin dute  
pantailako informaziorik irakurri. Elkarreak  
eskatu du beste pantaila bat jartzeko, lehendik  
dauden beste bien kontrako zentzuan eta, gutxi  
gorabehera autobusaren erdialdean, gurpildun  
aulkian doazen pertsonen ibilbideari buruzko in-  
formazioa izan dezaten.

Txartelak balioztatzeko makina pertsona guz-  
tien erabili ahal izan dezaten (adibidez, distrofia  
dutenek), makina zertxobait beherago jartzeko  
aukera iradoki dio Elkarreak TUVISAri.



## AHALDUNTZEKO IKASTARO PRAKTIKOA.

eginaren eginez elkarteak ahalduntzeko ikastaro praktikoa bat antolatu genuen maiztasun emakumeentzat. Isabel Jiménezek, Gutxitasuna duten Pertsonen Espainiako Konfederazioko (COCEMFE) Berdintasun Saileko prestatzaileak, dinamizatu zuen ikastaroa.



Bi taldetan banatuta, goizez bat eta arratsaldez bestea, saio bana egin zuten partaideek maiatzaren 29 eta 30ean, eta honako eduki hauek jorratu zituzten:

- jarduera dinamikoaren bidez gutxitasuna duten emakumeen inguruan sortutako estereotipoak eta rolak aztertzea
- banaka eta taldean gure identitatea (norbanakoarena nahiz taldekoa) aztertzea
- gure bizitzari buruzko irakurketa positibo bat egiteko tresnak eskuratzea
- gure ongizate pertsonalarekin loturiko erritu, ohitura eta usadioen gaineko gogoeta eta nork bere buruari begiratzeko ariketa erraztea
- gure eguneroko bizitzan arazoei aurre egiteko estrategia positiboak aztertzea


Emakume talde hauek SALBURUA Gizarte Etxeko II. eta III. Tailerra aretoetan elkartu ziren, 22 emakume guztira, eta aukera izan zuten beren bizipenak partekatzeko eta gutxitasunen bat duten emakumeen ahalduntze-prozesuan aurrerapausoak emateko.

## BATZAR OROKORRA

Aurreko ekainaren 5ean, eginaeren eginez Gutxitasun Fisikoa duten pertsonen Arabako Elkarteak batzar orokorra izan genuen PILAR Gizarte Etxeko erakusketa aretoan. Aurreko Batzarreko akta irakurri ondoren, 2016ko Jardueren Memoria eta 2016ko Kontuen Emaiza aurkeztu zen, Batzarrak erabilera publikoko erakundetzat aitortuta onar zitzan, horrela bazegokion. Ondoren, 2017ko Jardueren Proiektuari eman zitzaion bide, eta Elkarteak gutxitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunerako bultzatutako ekimenak eta horien aurrekontua aurkeztu zituen. Honako hauek dira ekimen horien ardatz eta oinarriak: bizitza independentea, irisgarritasuna, enplegua, emakumea, hezkuntza, haurtzarora eta nerabezarora, gizarte-proaktibazioa, ekarpen solidarioak, Herriz Herri, kolektiboarekiko hartu-emanak eta Gizarte Laneko eta Aholkularitza Juridikoko zerbitzuak. Zenbait kargu ere berritu ziren; honako hauek, hain zuzen: lehendakaritza, diruzaintza eta bi mahaikide. Haiei guztiei eta izendatu berriei onena opa diegu karguan, eta 2017ko Batzarrerara bertaraturako guztiei gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu, probintzia honetan aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera-berdintasunaren aldeko borroka babes-teagatik eta borroka horren euskarri izateagatik.

### ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA:

LEHENDAKARITZA	Karmele Antxustegi Urkiaga
LEHENDAKARIORDETZA	Francisco Javier Ruiz Lete
IDAZKARITZA	Blanca Esther Pinedo Gallego
DIRUZAINITZA	Kontxi Franco Ruiz
KIDETZA	Helena Espizua Martínez
KIDETZA	Iñaki Feal Iturralde
KIDETZA	Soraya Pontejo Navarro
KIDETZA	Igor Navarro Brea



## HEZKUNTZA

*eginaren* *egin*ez elkarte Blanca Garrido Hezkuntza Saileko ordezkariarekin eta Oro Sáez Hezkuntza Berrikuntzako teknikariarekin bildu gara, probintziako ikastetxeetan aniztasun funtzionala duten ikasleen egoera aztertzeko. Kontzientziazio eta sensibilizazio faltak eraginda zenbait jarreraren ondorioz ikasleen artean sortzen diren bazterketa-egoerak aipatu ditugu. Batez ere bigarren hezkuntzan sortzen dira egoera horiek.

Era berean, derrigorrezko hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean, eskolatze-prozesu osoan, laguntzak falta direla aldarrikatu dugu, eta baliabide teknikoak eta giza baliabideak jarri behar direla, beharrezko egokitzapenekin. Eta, orobat, beharrezko laguntzak behar direla jantokietan, jolastokietan, txangoetan, ikastetxeak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan, etab. Era berean, eskola-garraio irisgarria behar da, baina ez apartekoa, eskola-bizitza besteekin partekatzea oso garrantzitsua baita.

Hezkuntza inklusiborako eskubidea oinarritzko eskubidea da, eta gizarte osoaren konpromezua, eta, beraz, ikastetxe arrunt guztietan bermatu behar da. Jaurilaritzak Sailen arteko beharrezko koordinazio guztiak sustatu behar ditu, nor bere eskumenak hartzeko eta, esate baterako, osasun arloko eta erizaintzako laguntzak bermatzeko, beharrezkoa den kasuetan.

*eginaren* *egin*ez-ek, Elkartearen bidez, Euskadiko Eskola Kontseiluan eta Hezkuntzako Inklusio Lege berria lantzeko prozesuan parte hartzea eskatuko dugu.

## ERAZTUN BERDE IRISGARRIA

**E**lkarkea Ingurugiro Gaietarako Ikastetxeko teknikariarekin bildu da, Eraztun Berde Irisgarriaren proiektua gauzatzeko; izan ere, “Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz” programaren lehen edizioan, herritarrek, bozketa bidez, bideragarritzat jo dute proiektu hori. Hala, bankuak jarriko dira eraztun berdeko hainbat lekutan, eta scooter batzuk erosiko dira, Atarian alokatzeko eta ibilbidea egiteko.

## HAUR PARKE EGOKITUAK

**E**lkartearen beste proiektu bat ere gauzatzeko bidean gara “Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz” ekimenaren bidez, haur parke egokituena, hain zuzen. Horri esker, zabuak berrituko dira haur parke guztietan jolas egokituak egoteko. Kasu honetan, Eremu Publikoko teknikariarekin bildu gara, eta, hasteko eta behin (lehenetsunak jarri behar baitira) proposatu diegu har ditzatela kontuan ikastetxeetatik hurbil dauden parkeak, haietan aniztasun funtzionala duten ikasleak baldin badaude, eta, era berean, kontuan izan dezatela zabuek haurren gaitasunak sustatzeko eta haurrak estimulatzeko elementuak eduki behar dituztela; hau da, parkeak egokitzeko ez dela aski arrapala bat jartzea eta sartu ahal izatea; aitzitik, zabuetan ere **estimuluaren** bidez gaitasun inklusiboa duten elementuak egokitu behar direla.





## BABESTU ZURE ESKUBIDEAK. BIDAL IEZAGUZU ZURE SALAKETA

Zure eskubideak edo beste pertsona batzuenak urratu badituzte, zure kexa edo salaketa bidal diezagukezu, FEKOORek eskumena dugun erakunde edo organoen aurrean esku hartu ahal izan dezagun.

Gutxitasunen bat duen pertsona izateagatik zure eskubideak urratu badituzte, egoera horren kexa edo salaketa helaraz dezakezu, eskubide horiek babesteko. Gure helbide elektronikoaren bidez (fekoor@fekoor.com) edo gure web-orriaren bidez ([www.fekoor.com](http://www.fekoor.com)) egin dezakezu.

Hala, zurekin harremanetan jarriko gara kasuan-kasu abiaraz daitezkeen legezko eginbideei buruz aholkua emateko.

Modu horretara, eragile aktibo bihur zaitezke gizartea eraldatzeko prozesuan; izan ere, gaur-gaurkoz, gutxitasunen bat dugun emakumeek eta gizonek gizarteko esparru guztietan eskubide berberekin eta aukera-berdintasunean parte hartzeko beharrezkoa da aldaketa hori.

Informazio gehiago: **94 405 36 66**

## FEKOOR-EK ELKARTEAREN 2020 ESTRATEGIA ONARTU DU

FEKOOR elkartearen Zuzendaritzak 2017-2020 aldirako Plan Estrategiko berria onartu dugu.

FEKOOR 2020 estrategiak lehenetasunezko lau jarduera-ildo eta hamabi helburu estrategiko ditu.

**AHALDUNTZEA** ildoaren helburua da gutxitasunen bat duten pertsonak ahalduntzeko bidean laguntzea, beren bizitza-proiektua autonomian hautatu, aldarrikatu eta bete ahal izan dezaten.

**INGURUNEA** deritzon lan-ildoaren xedea da gizarte-eraldaketa sustatzea eta herritarren jarraera aktiboa bultzatzea, baita erakundeen erabateko konpromisoa lortzea ere, irisgarritasunaren, pertsona guztien mugikortasunaren, berdintasunaren eta bizitza autonomoaren alde egin dezagun.

**ZERBITZUAK ETA LAGUNTZAK** da hiru-garren lan-ildoaren ardatza, eta horren helburua da bizitza autonomorako zerbitzu, prestazio eta laguntza teknologikoa ematen duten produktuen eskaintza zabala aldarrikatzea, eta oinarritzko sistemetan (osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta gizarte-zerbitzuak) hobekuntzak lortzea.

**ANTOLAKETA ETA LANKIDETZA-SAREAK** da laugarren eta azken lerroa, eta horren xedea da FEKOOR federazioaren eta lankidetzaren antolaketa-garapena indartzea, Bizitza Eredu Independentea bultzatzeko ahaleginean eraginkorragoak izateko.

Gizarte inklusibo baten alde lanean jarraitzeko ilusioz eta uste sendoz aurre egingo diogu antolaketa mailako erronka horri, pertsona guztiok, inolako bazterketarik eta diskriminaziorik gabe, bizitza aske eta bete-betekoak bizitzeko aukera izan dezagun.

Dokumentua Irakurketa Erraza formatuan ere aurkeztua da, eta kontsultatu nahi duten guztientzat eskura dago gure web-orrian:

[www.fekoor.com](http://www.fekoor.com)





# BILBOKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA

**B**ilboko Udalak martxan jarritako Bilboko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana eztabaidatzeko prozesuan parte hartzen ari gara FEKOOREn.

2016-2030 epeari begira hiriko mugikortasun jasangarriaren esparruan norabide bat finkatzea eta izango diren ekintzak, neurriak eta jarduerak koordinatzea da plan horren xedea.

Foro horretan aldarrikatu dugu behar-beharrezkoa dela hiri inklusibo baten alde lan egitea, pertsona guztiek, inolako salbuespenik gabe, aukera izan dezaten eremu eta espazio berak partekatzeke eta norik bere bizitza-proiektua aurrera eramateko, modu askean aukera eginda.


## BILBO AURRERAGO! BILBOKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA EZTABAIDATZEKO SAIOETAN PARTE HARTU DU FEKOOREK

**F**EKOOR federazioko Irisgarritasun Bartzordea Bilboko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra aurrera eramateko lan-saioetan parte hartzen ari gara.

Bilbon datozen 20 urteetan izango diren eraldaketa-proiektu nagusiak jasotzen ditu Planaren aurrerapenak.

Lan-saioetan, gure dezepzioa agertu dugu, Planaren Aurrerapenak ez duelako gutxitasunen bat edo mugikortasun murriztua duten herritarren arretarako atal berezirik jasotzen; hori dela eta, plangintzan bertan eta berau garatzeko jarduera

guztietan irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztiak kontuan izango dituen diseinua zeharlerrotzat hartzea aldarrikatu dugu.



## BILBO, BALIOEN HIRIA

**B**ilbo, Balioen Hiria, udalaren proiektu bat da, eta ekimenaren helburua da erakundeen, gizarte entitateen, enpresen, hedabideen, ikastetxeen eta hiritarren arteko analisirako, eztabaidarako, hausnarketarako eta elkarlanerako gune bat sortzea, Bilboko balio partekatuen esparru bat sustatzeko.

Proiektuak Bilboko balio partekatuak definituko dituen gutxieneko bereizgarri batzuk lantzea du xede. Bereizgarri horiek Balioen Karta batean isladatuko dira, eta lan-agenda bat ere zehaztuko da Balioak Garatzeko Plan Oso baten bidez balio horiek bermatzeko eta sustatzeko.

Balioen karta, hain zuzen, “Balioen Vademecuma” deritzon dokumentu batean jaso da, eta hor agertzen dira, besteak beste, honako hauek: giza eskubideekiko errespetua, parte hartzea, elkartasuna, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, justizia soziala eta aniztasuna.

Izan garen bileretan, beste zenbait balio jasotzeko proposamena egin dugu; besteak beste, honako hauek: aukera-berdintasuna, modu independentean bizitzeko eta askatasunez aukeratutako bizitza-proiektu bat garatzeko eskubidea.



## GALDAKAOKO UDALAREKIN BILERA, MUGIKORTASUN-ARAZOAK DITUZTEN PERTSONENTZAT ERRESERBATUTAKO PLAZAK HOBETZEKO

**H**ainbat bilera egin ditugu Galdakaoko Udalarekin, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat erreserbatutako plaza hobetzen laguntzeko. Plazen gaur egungo egoera islatzen duen txosten bat egin dugu, eta horiek hobetzeko zenbait neurri proposatu ditugu. Txostena bera eta proposamenak udaleko lantaldeari helarazi dizkiogu.

Udalak konpromisoa hartu du erreserbatutako plaza gehiago egokitzeko, eta herritarrei bideratutako oinarriko zerbitzu publikoak eta baliabideak dauden lekuetatik hurbil plaza gehiago jartzeko. Neurri egokiak dira ingurunea bera eta inklusioa hobetzen jarraitzeko.

## BILBOKO UDALEKO KULTURA ETA KIROLETAKO ZINEGOTZIAREKIN BILERA

**F**EKOOR federazioko ordezkariak bilera izan dugu Ohiane Agirregoiti Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziarekin, udalerriko kirol-azpiegitura batzuk ez direla irisgarriak salatzeko. Zehazki, Bilboko itsasadarreko pantalanak ez direla irisgarriak jakinarazi genion, eta, horren ondorioz, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak ezin dutela gozatu itsasadarrean egin daitezkeen uretako kirolez eta aisialdiarekin eta turismoarekin loturiko jardueraz. Itsasadarrean egiten diren jardueretarako material egokiturik ere ez dago, eta horrek zaildu egiten du jarduera horiez gozatzea. Hori dela eta, aukera berberekin parte hartzea erraztuko duten baliabideak jartzea eskatu genion Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziari.

Horrez gain, laguntzeko prestutasuna agertu genion San Mamesko kiroldegi berria diseinatzeko eta gauzatzeko faseetan, baita gainerako kiroldegietan erabateko irisgarritasuna bermatzeko neurriak ezartzeko ere, gabezia nabarmenak hauteman baititugu haietan.



## BILERAK BATZAR NAGUSIETAKO TALDEEKIN

**F**EKOOR federazioa Bizkaiko Batzar Nagusietako hainbat talderekin bildu da aurreko asteetan, gure kolektiboaren egoera aztertzeko. Bilera horietan FEKOORen lehentasunak jasotzen dituen dokumentua eman genien (*FEKOOR-en lehentasunak Bizkaian gutxitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen eskubideak babesteko bideratzen diren politike-tan, haien parte-hartzea gizartean eta bizitza independentea*), eta, zehazki, gaurkotasan handiko zenbait gai aztertu genituen: Bizkaiko garraibide publikoetan mugikortasun murriztuko egoera aitortua duten pertsonen laguntzaileek ere txartela doakoa izatea, tarifa murriztuak aplikatzea eta horietan sartzea %33tik gorako gutxitasun fisikoa izanik garraibide publikoak erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonak.

Bestalde, bilera horietan beharrezkotzat jo genuen Bizkaiko Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazioko Oinarrizko Zentroak agiri bat ematea, honako hauek gutxitasuna duten pertsonatzat hartzeko: laneko ezgaitasunen bat aitortua duten eta %33tik beherako urritasuna baloratua duten pertsonak. Horren helburua da pertsona horiek dagozkien laguntza eta baliabide guztien onura jasotzea.

## SENTSIBILIZAZIO-JARDUERAK

Antolatzen ari garen hurrengo sentsibilizazio-jardueretan parte hartzera gonbidatzen zaitugu:

Uretara

**Kirol inklusiboa Bilboko itsasadarrean**

Uztailak 1


FEKOOR federazioak, Bizkaiko Kirol Egokituko Federazioarekin elkarlanean, “URETARA 2017” ekitaldia antolatuko du datorren uztailearen 1ean: kirol-festa inklusibo bat Bilboko itsasadarrean, piragua, traineru eta paddle surfeko taulekin.

**FEKOOR elkartearen jaia**

Irailak 24

Datorren irailaren 24an izango da Elkarteen III. Jaia Bilboko Areatza pasealekuan, Federazioa osatzen dugun 20 elkarteok eginiko lana gizarte osoarekin partekatzeko.

Bazkideok, boluntarioek eta profesionalak gune bat izango dugu FEKOOR elkarteak egiten duen lana gizarteari ezagutarazteko, eta gutxitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen inklusiorako eta haien bizitza-kalitatea hobetzeko aurrerapausoak ematen jarraitzeko. Jaian informazio-gune bat, Haurrentzako tailerrak, musika-animazioa, txosna, etab. izango dira.



## ELKARTUZ TOPAKETA. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA. BERDINTASUNA, URRATSEZ URRATS

Joan den ekainaren 20an, Elkartuz Topaketa antolatu genuen **elkartuk**, Irisgarritasunaren Sustapenerako 20/1997 Legearen 20 urteak erreparasatzea ardatz harturik. “Irisgarritasun Unibertsala. Berdintasuna, urratsez urrats”, izenburu horixe jarri genion topaketari.

Donostiako Tabakalera egin genuen topaketa, eta jende asko eta askotarikoak parte hartu zuen: desgaitasunen bat duten pertsonak, ordezkari politiko eta instituzionalek, Hirugarren Sektore Sozialeko elkarteak, alor ugaritako profesionalak...

Hasierako hitzaldiak, **elkartuk** berak emana “Gizartea aldatu, urratsez urrats, irisgarritasun unibertsalaren bitartez” gaitzat harturik, gogora ekarri nahi izan genuen mugimendu asoziatiboek jarri genuela martxan Irisgarritasunaren Sustapenerako Legea erreibindikatzeko pro-

zesua. Horrekin batera, Legea indarrean sartu zenetik igarotako 20 urteotan gure federazioak irisgarritasunaren alorrean, Gipuzkoa irisgarriago eta inklusiboago bat lortzearen, egindakoak ere erreparasatu genituen. Azkenik, irisgarritasun unibertsalaren alorreko gaur egungo politiken gaineko balorazioa ere egin nahi izan genuen elkartuk, eta alde horretatik, datozen urteotarako helburuak seinalatu genituen, pertsona guztientzako espazio, ondasun eta zerbitzuak bermatzea xede duten ekimenak sustatzeko.

Bigarren hitzaldia Consuelo del Moral Ávila irakasleak eman zuen. Granadako Unibertsitateko Irisgarritasun Unibertsal Saileko ikertzaile eta zuzendariak irisgarritasun unibertsalaren eta ondare-ondasunen arteko lotura aztertu zuen. Ikertzaileak gogoratu zuenez, batzuetan bi arlo horiek elkarrekin talka egiten badute ere, behar-beharrezkoa da biak nola edo hala uztartzea, pertsona guztiek izan dezaten bermatua ondareaz gozatzeko duten eskubidea; arrazoi kultural, historiko edo artistikoagatik babes berezia merezi duenez, batik bat.

Topaketa amaitzeko, mahai-inguru tekniko batean parte hartu zuten Ruben Darío Urrestara-



zuk (garraioaren eta irisgarritasunaren alorreko aholkularia), Juan Maria Etxeberriak (Arkitektoa eta Donostiako Udaleko Hirigintza zuzendariordea), Nestor Garayk (Informatikan doktorea eta UPV/EHUko Behar Bereziatarako Gizaki-Konputagailu Elkarrekintza Laborategiko kidea) eta Sagrario Iturrartek (Abokatua eta Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasunaren arloko Laguntza Zerbitzu Teknikoko kidea). Mahai-inguruan, irisgarritasunean urratsak egiteko zer helburu transbertsal bete behar diren aztertu zen; horretan, gaiarekin zerikusia duten ertz guztiak hartu ziren aintzat (mugikortasuna eta garraioa, hirigintza, teknologia, legedia...), den-denek dutelako eragina herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzea helburu duten neurrietan.

Azken batean, mugimendu asoziatiboak desgaitasunak dituzten pertsonen alde egindako ekimena izan zen “Irisgarritasun Unibertsala. Berdintasuna, urratsez urrats” topaketa, horrek irisgarritasun unibertsalaren alorreko politikak sustatuko dituela uste baitugu. Espazio, ondasun eta zerbitzuez gozatzeko pertsona guztiek duten eskubidea hezurmamitzeko balioko dute topaketan azaldu ziren helburu eta proposamenek.



## DONOSTIAKO UDALEKO LAN- POLTSAK SORTZEKO ETA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

Donostiako Udalak zenbait irizpide onartu ditu, aldi baterako zerbitzuak eskaintzea helburu duten lan-poltsak sortzeko eta kudeatzeko. Udaleko Gobernu Batzarrak onartutakoaren kontra **elkartuk** aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa aintzat hartu, eta desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu publikoa izatearen aldeko neurri positiboak hartzea onartu du Udalak.

Hala, desgaitasunak dituzten pertsonen izendapenei dagokienez, zera erabaki du Donostiako Udalak: Administrazio Publikoen Legeak desgaitasunak dituzten pertsonen kontrataziorako ezarritako kuotetara iritsi arte, edo, kontratazio-kopurua handiagoa baldin bada, negoziazio bidez erabakitako kuotetara iritsi arte, hiru kontratu edo izendapenetatik bat langile-mota horien aldekoak izatea. Hurrenkera-aginduaren arabera erabili beharreko zerrendak osatzera datoz oraingo zerrenda hauek. Muga berberekin, desgaitasunak dituzten langileei batere zerrendarik ez balegokie, langile-mota horien aldeko kontratazio- edo izendapen-kopuru bera egiten ahalegintzea da adostutakoa, baldin eta Administrazio eskumendunak % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortu baldin badie langileoi, eta pertsona horiek hurrenkera-aginduaren arabera ezarritako zerrenden barruan baldin badaude.

Donostiako Udalak guk aurkeztutako alegazioak onartu izana oso begi onez baloratzen dugu **elkartuk**, horrek aukera emango baitu, batetik, Administrazio Publikoek, desgaitasunak dituz-

ten langileen kontratazioari dagokionez, legeak ezar-tzen dituen kuotetara iristeko duten bete-behar legala betetzeko, eta, bestetik, Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideen Konbentzioak ezarritakoarekin bat etorritz, lan-eremu ireki, irisgarri eta inklusibo batean lan egiteko langile guztiek duten eskubidea bermatzeko.

## ELKARTUK IKERKETA-LAN BAT AURKEZTU DU ESPAINIAKO GIZARTE POLITIKEI BURUZKO KONGRESUAN ETA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN

**E**lkartuk aktiboki parte hartu genuen joan den otsailaren 16an eta 17an, Sevillan, egin zen Espainiako Gizarte Politiken Sarearen VI. Kongresuan. Honako komunikazio hau aurkeztu genuen bertan: “Gipuzkoan desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen egoeraren eta premien azterketa diagnostikoa. Gizarte-esklusioa diagnostikatzeko baliabideen aplikazioa: desgaitasunaren alorrean gizarte-politikak diseinatzeari buruzko datuak eta ondorioak”.

Komunikazioaren bitartez, 2016an jendaurrean aurkeztu genuen ikerketa-proiektuaren datu, ondorio eta proposamenen berri eman genuen. Esklusioaren alorrean, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legeak eskaintzen duen diagnostikobaliabidea aplikatzen da ikerketa-lan horretan, eta horrek aukera eman digu objektiboki zehazteko zein den desgaitasun fisikoa duten pertsonen inklusio/esklusio-egoera erreala, bai eta egoera horren kausak zein diren aztertzeko ere.

Era berean, joan den urtarrilaren 30ean, **elkartuk** “Gipuzkoan desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen egoeraren eta premien azterketa diagnostikoa” aurkeztu genuen Gipuzkoako Batzar



Nagusietako Gizarte Politiken Batzordean. Oinarrizko datu eta jardunbideak aurkeztu ondoren, Federazioak alderdi politikoetako ordezkarien galderei erantzun genien; galdera-erantzunak hiru gaitan multzoka daitezke: batetik, irisgarritasun unibertsala sustatzeko politikak bultzatu beharra; bestetik, desgaitasunak dituzten pertsonen lan-eremu ireki, irisgarri eta inklusibo batean lan egiteko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak indarrean jarri beharra; eta, azkenik, bizimodu independentearen eredia sustatzearen aldeko baliabide eta diru-laguntzak bermatzea helburu hartu beharra.

## IRIZPIDE-ALDAKETA ETXEBIZITZA PUBLIKOAREN ALORREAN ETA BALIAEZINTASUN HANDIAGATIKO OSAGAIA KALKULATZEKO MODUETAN

**E**txebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak baliaezintasun handiagatiko osagai espezifikoa kalkulatzeko irizpideak aldatu ditu, bizikidetz-unitateen etekinak zehaztea hel-



buru hartuta. Hemendik aurrera, baliaezintasun handiagatiko diru-sarrerak dituzten pertsonen kasuan, kontzeptu horregatik jasotako errenten edo diru-laguntzen guztizkoaren bi heren hartuko dira aintzat, beste herena baliaezintasuna duen pertsonaren zaintzaileari ordaintzeko erabiltzen dela iritzita.

Desgaitasun bat aitortua zuen eta alokairu soziala lortzeko eskaera egin zuen pertsona bati, bere hileko errenta kalkulatzeko osagai hori adierazi ez zuela eta, ezezkoa eman, eta pertsona horrek kexa bat aurkeztu ondoren, gure Federazioak txosten bat bidali zien Donostiako Etxegintza entitate publikoari eta Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari. Txosten horretan, aipatu dugun osagaiak izaera finalista duela argudiatzen genuen, eta osagai hori bizikidetzaren unitatearen eitekintzat har ez dadin eskatzen.

Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 21.2 b) artikuluan oinarritzen zen irizpide hori, orain arte indarrean egon dena; diru-sarreraren kalkuluari dagokionez, *“pentsioei eta langabezia-sorospenei eta halaber zergarik gabeko dietei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 100”* aintzat hartuko dela ezartzen du artikulua horrek.



Baliaezintasun handiaren osagai espezifiko horrek izaera finalista duela defendatu genuen **elkartuk**, eta beraz, kalkulatzekoak diren diru-sarreraren artean osagai hori aintzat ez hartzea eskatu genuen, beste eremu batzuetan ere hala egiten dela argudiatzeko, hala nola pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, autonomia pertsonala eta mendekotasunaren arreta sustatzeko sisteman, eta diru-sarrerak bermatzeko sisteman.

Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak bere irizpideak aldatu izana oso positibotzat hartu dugu **elkartuk**, horrek etxebizitza izateko pertsona guztiek duten eskubidea bermatzen baitu, batetik, eta, bestetik, etxebizitza publiko bateko alokairu-kontratuaren titularrak diren eta baliaezintasun handiagatiko pentsioa edo antzeko beste pentsio edo diru-laguntza jasotzen duten pertsonen aukera ematen baitie beren hileko errenta berrikus dadin eskatzeko.

## EUSKOTRENEK TOPO LINEAKO TRENAK ALDATZEA ONARTU DU

**E**uskotrenek Topo lineako trenak pixkanaka aldatzeko prozesu bati ekin dio, irisgarritasun-baldintzak zorroztu eta, horrela, mugikortasun urriko pertsonen egoera hobetzeko. Aldaketak bi motatakoak izango dira: batetik, bagoietako baten sarrera egokituko da, nasaren altuera eta distantzia berean egon dadin, eta orain arte erabili izan diren arrapalak kenduko dira, nasaren eta bagoiaren arteko altuera desberdina duten geltokietan izan ezik; eta, bestetik, mugikortasun urriko pertsonentzako espazio berritatuak diseinatuko dira.

Nabarmendu beharra dago trenera sartu edo trenetik irten behar duena aulki gurpildunean baldin badoa, atetako bakoitzean jarriko den argiari erreparatu beharko diola nora jo jakiteko (zer ate irekiko den, hantxe piztuko da argia).

Zenbait erabiltzaile kexatu ondoren, eta al-daketen ezaugarriak egiaztatu eta gero, **elkartu** Euskotreneko arduradunekin bildu ginen, eta, besteak beste, honako hobekuntza-proposamen hauek egin genizkion:

- Gure Federazioak 2013ko apirilaren 24an In-gurumen eta Lurralde Politiken Batzordean bere iritzia eman ondoren Eusko Legebiltzar-rak onartutako 10/11/02/01/0159 legez bes-teko proposamenean oinarriturik, **elkartuk** tren-zerbitzuen irisgarritasun-kondizioak bermatzeko hartu beharreko neurriak diseinatze-ko eta gauzatzeko lanetan parte hartzea.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta perso-na guztiak aintzat hartzen dituen diseinu-ereduaren printzipioekin bat etorri, ibilgailu eta nasa guztien artean altuera eta distantzia berbera dagoela bermatzen duten sarbideak egokitzea, horrek pertsona guztien autonomia eta segurtasuna berma ditzan.
- Espazioak behar bezala diseinatzea, mugikor-tasun urriko pertsonen irisgarritasun, manio-

bragarritasun eta moldaera autonomoago eta seguruagoa izan dezaten.

- Orain arte indarrean zeuden arrapala bidezko sarbideei eustea, bai eta gaur egun arte mu-gikortasun urriko pertsonen gordetzen zitzaiz-kien espazioei ere.
- Herritarrei tren-zerbitzuetan egingo diren al-daketen berri emateko neurri informatiboak hartzea.
- Tren-azpiegituren eta garraiobide horren ele-mentuen irisgarritasun-kondizioak bermatze-ko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Laburbilduz, bidaiarien tren-zerbitzu pu-blikoaren irisgarritasun-kondizioak hobetzearen alde lanean jarraituko dugu **elkartuk**, eta horre-tarako, bi eskaera hauek egiten jarraituko dugu: batetik, irisgarritasunari buruz indarrean da-goien legedia bete dadila, eta, bestetik, pertsona guztiek tren-zerbitzuez parekotasunez gozatzeko beharrezkoak diren irisgarritasun- eta diseinu-printzipioak berma daitezela.

